98
ARGIT



ERI-EDESTIAK

Gure belaŕietara elduyakun beste beŕi atzegingaŕibat ere. Asmau dute eŕietan itzaldi edeskitzuak gertatzia. Eŕi bakoitzian erakutzi noiz ta nola soŕtua dan: nolan geitu ta aunditu dan: gertaerarik omengaŕienak azaldu, gizonik entzute aundikoenak izendatu, ta abaŕ. Aŕtarako antolatu oi ditue argazki txukun-txukunak, gure asaba zaŕen oiturak, soñekuak, guda-tramankuluak ta abaŕ erakusten, baita antxiñako ikuspeki, gudaroste ta ilargi-beteko jaiak ere.

Uste degu ardura aundiko itzaldiak izango dirala onek, ta era egokia iruditzen zait orixe gure eŕian beŕi erakusteko.

Auŕtengo neguan, bateronbatzuk ez dira lo egongo ba. Dana da gure Abeŕian onerako. Jaunak lagun ditela.

L.

ARTX. E.I./S.E.V.
Saila
Agiri Zk

ARTX. E.I./S.E.V.
Saila
Agiri Zk